


SHK juridikoa



S
i
n
d
i
k
a
l
H
e
z
i
k
e
t
a

5.

Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak

LAB
Hezkuntza

ZA
BAL
TZEN

Zbkia

SHK 00023

DOKUMENTAZIO
ZENTROA



5.

**Enpresarien
arau-hauste
eta erantzukizunak.**

5. Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.


Idazleak: **Joxean Lozano (Abokatu).**
Alfontso Zenon (Abokatu).
Txema Mugire (Gizarte graduatua).

Argitaratzailea **Ipar Hegoa Fundazioak**

ipar•hegoa



5.



SINDIKAL HEZIKETA

Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.

Sarrera.

Enpresarien arau-hauste
eta zehapenak.

Arlo sozialeko delitu, zigor
eta zehapenak.

5. Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.

Uste dugu lan (gida) honek baduela berez bere balioa, baina, gainera, lehenagoko lan baten, **LANGILEEN ORDEZKARIEN ESKUBIDE ETA BERMEEI buruzkoaren, osagarri ere bada.**

Lan harremanen eremuan ohituta gaude enpresariak inbutu-legearen babesera jotzen ikusten etengabe, oso zorrotzak direlarik eta zigor mota guztiak ezartzen dituztelarik langileen zenbait lege-urratze eta hutsegite gertatzen direnean, langileok kaleratzera ere iritsiz ez gutxitan, baina beren buruekin nahikoa permisiboak direlarik, ostera, sarri askotan lotsagabeki utziz bazterrerera euren obligazio legalak.

Enpresariak "beren legalitateari" dioten ohizko begirunerik ezarekin, erantzukizun administratiboren baten erantzule bihur daitezke zenbaitetan eta izaera penaleko erantzukizunetan beste zenbaitetan, eta azken hau larriagoa izan daiteke. Gu guztion obligazioa da legezko arauak bete ditzatela eskatzea -horretarako eskubidean gaude-; gureak oso eskubide urriak dira, egia esan, baina gutxi horien ez betetze sistematikoak tentsio eta gatazkak sor ditzake lan harremanetan eta, batzutan, gure lankideen gaixotasun profesionalak eta heriotza bera ere eragin dezake.

Langileen ordezkariak garenez, enpresariak eta berauen kudeatzaileak salatzeari dagokigu legea betetzen ez dutenean, beraiek langileekin erabili ohi duten irimotasun mailarekin gutxienez.

Enpresarien arau-hauste eta zehapenak.

LE 93 eta LAPL 45 art.

Laneko arau-hauste dira enpresariak lege-arauen, araudi-arauen eta konbenio kolektiboen lan arloko arauzko klausulen kontra egiten edo egin gabe uzten dutena (segurtasun arloan eta laneko osasun arloan barne), arauok lege honen arabera tipifikatu eta zehatzen direlarik (Langileen Estatutua eta Laneko Arriskuen Prebentzio Legea)

LANGILEAK UZTEA

LE 96.2

Oso larria

Indarreango legeriak debekatzan dituen baldintzetan langileak uztea.

ENPRESA IXTEA

LE 96.3

Oso larria

Enpresa ixtea edo jardunari aldi baterako zein behin-betiko uztea lan agintarien baimenik gabe, baimen hori eskatu beharra dagoenean.

LAN KONTRATUA

LE 94.5

Arina

Langileari idatzizko informazioa ez ematea kontratuaren funtsezko elementuei buruz eta lan prestazioa egiteko baldintza nagusiei buruz, araudiak ezartzen dituen modu eta epeen arabera.

LAN KONTRATUA

LE 95.1

Larria

Lan kontratua idatziz ez formalizatzea, baldintza hau galdagarria denean edota langileak idatziz eskatu duenean.

LE 95.6

Larria

Kontratu modalitateei buruzko iraupen jakin bateko kontratuak,

HUTSEGITE OROKORREN GRADU-MAILA.

Arinak.			Larriak.			Oso larriak.		
GRADU GUTXIENA	GRADU ERTAINA	GRADU GORENA	GRADU GUTXIENA	GRADU ERTAINA	GRADU GORENA	GRADU GUTXIENA	GRADU ERTAINA	GRADU GORENA
5.000tik 10.000ra	10.001etik 25.000ra	25.001etik 50.000ra	50.001etik 100.000ra	100.001etik 250.000ra	250.001etik 500.000ra	500.001etik 2.000.000ra	2.000.001- 8.000.000ra	8.000.001- 15.000.000

SEGURTASUNARI ETA LANEKO OSASUNARI DAGOZKION HUTSEGITEEN GRADU-MAILA.

Arinak.			Larriak.			Oso larriak.		
GRADU GUTXIENA	GRADU ERTAINA	GRADU GORENA	GRADU GUTXIENA	GRADU ERTAINA	GRADU GORENA	GRADU GUTXIENA	GRADU ERTAINA	GRADU GORENA
Hasta 50.000	50.001 a 100.000	100.001 a 250.000	250.001 a 1.000.000	1.000.001 a 2.500.000	2.500.001 a 5.000.000	5.000.001 a 20.000.000	20.000.001 a 50.000.000	50.000.001 a 100.000.000

5. Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.

aldi baterako kontratuak- araudia haustea, kontratuok lege-maulaz erabiliz, legeak araudiaren edota konbenio kolektiboaren bidez (negoiazio kolektiboz ebazteko auziak direnean) aurrikusitakoaz bestelakoak burutuz pertsonen, helburuei, supostuei eta denboramugei dagokienean.

JARDUERA KONTROLA

LE 94.4

Larria

Etxean lan egiten dutenen eskuera ez jartzea haiek burutzen duten lan jardueraren kontrol dokumentua.

LANGABEZIA

88/8 LEGEAREN 29 ART

Larria

Behar den denboran eta forman ez entregatzea langileari enpresaren egiaztagiria eta langabezi prestazioaren tramitaziorako behar diren dokumentuak.

88/8 LEGEAREN 29 ART

Larria

Langabezi kontingentziagatik ez kotizatzea, legeak xedaturikodenbora eta zenbatekoaren araber.

88/8 LEGEAREN 29 ART

Larria

Langabezi prestazioaren ordainketa delegatua ez egitea behar den denbora eta zenbatekoaren araber.

88/8 LEGEAREN 29 ART

Oso larria

Dokumentuak faltsutzea edo egoerak simulatzea, langileek langabezi prestazioak maulaz lortu edo goza ditzaten.

88/8 LEGEAREN 29 ART

Oso larria

Lanari denbora osoz nahiz zatiz berrekiteari enplegu erregulaziorako espedientez egindako kontratuetendura edo lan-jardunaren murrizketa kasuetan, baldin eta langileek langabezi prestazioak maulaz kobratzen jarraitzen badute.

DISKRIMINAZIOAK

LE 96.12

Oso larria

Enpresariaren aldebakarreko erabakiak, adinagatiko diskriminazio kaltegarriak dakartzatenean edota aldeko edo kontrako diskriminazioa eragiten dutenean ordainketa arloan, hala nola lan-jarduna, prestakuntza, promozioa eta gainerako lan baldintzen arloan, sexu, jatorri, egoera zibil, arraza, gizarte maila, ideia erlijioso edo politikoenegatik, sindikatuari eta barauen akordioei atxikimendu ala ez atxikimenduagatik, hala nola enpresako beste langile batzuekiko sendetasunaren eta espainiar estatu barruko hizkuntzaren kariaz.

DISKRIMINAZIOAK ETA BESTE

LE 95.10 ART., LE 4 ART

(Laburpena)

Larria

Legeak edo konbenio kolektiboak ezagutzen dizkien baino beharagoko lan baldintzak jartzea langileei, hala nola lege honen 4. artikuluan ezagutzen zaizkien eskubideen kontrako egintzak zein omisioak, berauen kalifikazioa oso larritzat jotzen ez bada, hurrengo artikulua honen araber:

Langileek honako hauek dituzte oinarriko eskubideetat, eskubideotariko bakoitzerako bere araudi espezifikoa xedatzen duen eduki eta alkantzuaren araber:


- Sindikatze librea
- Negoiazio kolektiboa
- Gatazka kolektiboko neurriak hartzea
- Greba
- Batzarra
- Enpresan parte hartzea
- Egiatzko okupazioa
- Lanean promozioa eta lanbide prestakuntza
- Lanean sartzeko edota sartu ondoren jarduteko diskriminatuak ez izateko eskubidea, dela sexuagatik, egoera zibilagatik, adinagatik LEak xedaturiko mugen barruan, arraza-gatik, gizarte mailagatik, ideia erlijioso edo politikoenegatik edota sindikatuaren batera afiliatzeagatik edo ez afiliatzeagatik; ezingo dira diskriminatu, ezta ere, ezintasun psikiko edo sensorialengatik, dagokien lana edo zeregina egiteko gaitasun maila erakusten baldin badute.
- Segurtasun fisikoa, hala nola segurtasun eta higiene politika egokia
- Bere intimitatea errespetatzea
- Bere duintasunagatik zor zaion begirunea izan diezaioten, sexu-izaerako eraso fisiko zein berbazkoen aurrean babesa barne.
- Itundutako edo lege xedatutako ordainketa puntualki jasotzeko eskubidea.

ATZERRITARRAK

88/8 LEGEAREN 35 ART

Oso larria

Langile atzerritarrez baliatzea, alde aurretik beharrezko lan bai-



mena edo horren berriztapena lortu gabe (ikus, halaber, 88/8 legearen 32-33-34 art.)

LANGILEEN INTIMITATEA ETA DUINTASUNA

LE 96.11

Oso larria

Intimitatearekiko errespetuaren eta langileen duintasunari zor zaion begirunearen kontra doazen enpresariaren egintzak.

LAN-JARDUNA

LE 94.2

Arina

Indarrean dagoen lan egutegia lantegian ondo ikusteko moduan ez jartzea.

LE 95.4

Larria

Lan-jardunaz, gaueko lanaz, aparteko orduz, atsedendiez, oporrez, baimenez eta, oro har,

langileen estatutuaren 23 eta 24tik 28ra arteko artikuluek aipatzen duten laneko denboraz itunduriko muga legalak eta arauak urratzea.

BISITA LIBURUA

LE 94.1

Arina

Lan eta gizarte segurantzaren ikuskaritzako bisita libururik ez egotea lantokian.

ARLO SINDIKALA

LE 96.5

Oso larria

Langileen, berauen ordezkarien eta sekzio sindikalen bilera eskubidea legez zein ohituraz xedaturiko baldintzetan gauzatzea eragozten duten egintzak nahiz omisioak.

LE 96.6

Oso larria

Ordezkaritza handiena dute-

nen erakunde sindikaletan Probitzi, Autonomi edo Estatu mailako hautetsi-kargua dutenei ASLO-aren 9.1.c artikulua xedaturiko baldintzen arabera lantegietara sartzeko eta laguntza emateko eskubidea urratzea.

LE 96.7

Oso larria

Langileen ordezkarietarako hautes prozesuen arau erregulatuak enpresariari ezartzen dizkioten lankidetzaren betebeharrak materialak urratzea.

LE 95.8

Larria

Langileen ordezkarien era sekzio sindikalen eskubideak urratzea ordaindutako ordu-kredituak eta euren jardueretarako lokal egokiak emateari dagokionez, hala nola iragarki-etaulak jartzeari dagokionez legez edo ohituraz ezarritako baldintzen arabera.

5. Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.

LE 96.10

Oso larria

Langileen greba eskubidea kaltetzen duten enpresariaren egintzak, hala nola greban diren langileen ordez beste batzuk sartzea, berauen jardunean lantokiarekin loturarik ez daukatenak, ordenamenduak justifikatzen dituen kasuetan salbu.

LE 96.8

Oso larria

Konbenio kolektiboetan gai sindikalari buruz xedaturiko arauklausulak urratzea.

LE 95.7

Larria

Langileen ordezkariak eta delegatu sindikalek legez edo ohituraz xedaturiko baldintzetan dituzten informazio eta aholkamendu eskubideak urratzea.

LE 95.9

Larria

Sekzio sindikalek legez edo

ohituraz xedaturiko baldintzetan kuotak biltzeko eta informazio sindikala zabaldu eta jasotzeko dituzten eskubideak urratzea.

LE 96.9

Oso larria

Lantegia xedaturiko epean berrirekitzeari uko egitea enpresariak, lan-agintari eskudunak berrirekitze hori errekeritzen duenean, itxiera patronalaren kasuetan.

ADIN TXIKIKOAK

LE 96.4

Oso larria

Adin txikikoen lanari buruz LE-ak xedatzen dituen arauak urratzea.

88/8 LEGEAREN 11 ART

Oso larria

Adin txikikoentzat debakaturiko lanei buruz indarrean dauden arauak ez betetzea.

LAN BALDINTZEN

ALDARAZPENA

LE 95.5

Larria

Enpresariak funtsezko lan baldintzen aldarazpena aldebakarreko erabakiz ezartzea, LEaren 41 artikuluan xedaturikoaren arabera.

S. ETA OSASUNA

LPRL 46.1 ART

Arina

Garbitasunik eza, langileen segurtasunerako edo osasunerako arriskurik ez dakarren kasuetan.

LAPL 46.2 ART

Arina

Gertaturiko lan istripuen eta laneko gaixotasunen berri lan agintaritzari ez ematea, arintzat kalifikaturiko kasuetan.

Greba. Greban dauden langileak ordezkatzeko oso ekintza larritzat jotzen da.



9LAPL 47.3 ART

Larria

Gertaturiko lan istripuen eta laneko gaixotasunen berririk lan agintaritzari ez ematea, larri, oso larri edo hilgarritzat kalifikaturiko kasuetan, edota, langileen osasunari kalteak eraginez edo prebentzio neurriak behar bezalakoak ez diren zantzuak izanez gero, horri buruzko ikerketarik ez burutzea.

LAPL 46.3 ART

Arina

Lantegia ireki dela edo, garrantzizko aldaketa edo hedapenak egin ondoren, lanak berriz hasi edo jarraitu dutela ez jakinaraztea lan agintaritzaren eskudunari, edota deklaratu edo konplimentatu behar dituen datuak zehaztasunik gabe ematea, bere elementuen, prozesuen edo manipulatzaren diren substantziengatik industria arriskutsua, osasungaitza edo kaltegarria ez baldin bada.

LAPL 47.5 ART

Larria

Lantegia ireki dela edo, garrantzizko aldaketa edo hedapenak egin ondoren, lanak berriz hasi edo jarraitu dutela ez jakinaraztea lan agintaritzaren eskudunari, edota deklaratu edo konplimentatu behar dituen datuak zehaztasunik gabe ematea, bere elementuen, prozesuen edo manipulatzaren diren substantziengatik industria arriskutsua, osasungaitza edo kaltegarria baldin bada.

LAPL 46.4 ART

Arina

Laneko arriskuen prebentzio araudia betetzen ez denean, ez-betetze horiek langileen segurtasun

unerako edo osasunerako eragin larriak ez dutenean.

LAPL 47.16 ART

Larria

Laneko arriskuen prebentzio araudia betetzen ez denean, ez-betetze horiek langileen segurtasunerako edo osasunerako arrisku larria sortzen dutenean, batik bat arlo jakin zenbaitzutan:

LAPL 46.5 ART

Arina

Laneko arriskuen prebentziarako araudiak exijitu eta izaera formal edo dokumentala duen beste edozein betebehari huts eginen diotenak, larri edo oso larritzat tipifikaturik ez baldin badaude.

LAPL 47.1 ART

Larria

Laneko arrisku-prebentzioari buruzko araudiaren arabera diharduten langileen arrisku ebaluazioak eta, hala dagokionean, lan baldintzen eta jardueraren aldizkako kontrolak ez egitea, edota ebaluazioen emaitzek beharrezkotzat jotzen dituzten prebentzio-jarduerak ez burutzea.

LAPL 47.2 ART

Larria

Laneko arrisku-prebentzioari buruzko araudiaren arabera diharduten langileen osasun egoeraren derrigorrezko araketa medikoak eta aldizkako zaintza-probak ez egitea, edota proba horien emaitzen berri ez ematea langile jasaleei.

LAPL 47.4 ART

Larria

LAPL 16, 22 eta 23 artikuluek aipatzen dituzten ebaluazioen, kontrolen, araketen, ikerketen edo

txostenetan jasotako datuak ez erregistratu eta artxibatzea.

LAPL 47.6 ART

Larria

Laneko segurtasun eta higiene plana lantzeko obligazioa ez betetzea eraikuntza eta herrilaren proiektuetan, hala nola obligazio hori ez betetzea obraren bolumenean edo langileen kopuruan lege-maulazko aldaketak sartuz.

LAPL 47.7 ART

Larria

Beren ezaugarri pertsonalekin bateraezinezko baldintzak dituzten lanpostuak esleitzea langileei, edota dituzten lanpostuen exigentzia psikofisikoei ez dagozkien egoera edo baldintza iragankorretan nabariki aurkitzen direnei, hala nola langileoi laneko segurtasun eta osasun arloan dituzten gaitasun profesionalak kontuan hartu gabe zereginak esleitzea, 47.8 artikulua arabera arau-hauste oso larritzat jotzen diren kasuetan salbu.

LAPL 48.4 ART

Oso larria

Beren ezaugarri pertsonalekin bateraezinezko baldintzak dituzten lanpostuak esleitzea langileei, edota dituzten lanpostuen exigentzia psikofisikoei ez dagozkien egoera edo baldintza iragankorretan nabariki aurkitzen direnei, hala nola langileoi laneko segurtasun eta osasun arloan dituzten gaitasun profesionalak kontuan hartu gabe zereginak esleitzea, arau-hauste horretatik langileen segurtasun eta osasunerako arrisku larria eta berehalakoa ondorioztatzen denean.

5. Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.

S. ETA OSASUNA

LAPL 47.8 ART

Larria

Segurtasunari eta osasunari kalte egiteko moduko lanpostuen arriskuei buruzko eta aplika daitzkeen prebentzio neurriei buruzko prestakuntza eta informazio nahikoa eta egokia emateko obligazioa ez betetzea, baldin eta 48 artikuluari dagokion arau-urratze oso larria ez bada.

LAPL 47.9 ART

Larria

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren arabera langileen segurtasun eta osasunerako arrisku-kalte larriak dakartzaten agente kaltegarrien eraginpean jartzeko mugak gainditzea, hartarako prebentzio-neurri egokiak hartu gabe, baldin eta 48 artikuluari dagokion arau-urratze oso larria ez bada.

LAPL 47.10 ART

Larria

Lehen sorospen, suteen kontrako ekintza eta langileen ebakua-zioari buruz LAPL 20 artikulua aurrikusten dituen naurriak ez hartzea.

LAPL 47.11 ART

Larria

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezagutzen dituen langileen informazio, aholka-mendu eta eskuhartze eskubideak ez betetzea.

LAPL 47.12 ART

Larria

Prebentzio jardueretarako izendaturiko langileei eta prebentzio delegeatuei berauen eginkizunak garatu ahal izateko presta-

kuntza edo baliabide egokiak ez ematea.

LAPL 47.13 ART

Larria

Beren jarduerak lantegi berean burutzen dituzten enpresariak laneko arriskuen babes eta prebentziorako behar diren koordinazio neurriak ez hartzea.

LAPL 47.14 ART

Larria

Lantegiko enpresari titularrak lantegi horretan diharduten gainetarako enpresariei ez ematea informazioari arriskuei zein babes, prebentzio eta larrialdi neurriei buruz.

LAPL 47.15 ART

Larria

Enpresan babesaz eta prebentzioaz arduratzeko langile bat edo bat baino gehiago ez izendatzea edota prebentzio zerbitzua ez antolatzea edo adostea, hori egitea derrigorrezkoa denean.

LAPL 47.17 ART

Larria

Aldi baterako edo iraupen jakin baterako lan harremanekin edo aldi baterako lanaren enpresek bidalitako langileak enpresara sartu direla informatzeko obligazioa ez betetzea prebentzio jardueraz arduratzeko izendatuta dauden langileei edota, kasua balitz, prebentzio zerbitzuari.

LAPL 47.18 ART

Larria

Prebentzio zerbitzuari ez erraztea LAPL 23 artikulua seinalaturiko informazioa eta dokumentazioa sarbidea.

LAPL 47.19 ART

Larria

Enpresaren prebentzio-sistema ez jartzea, arauz ezarritakoaren arabera, kanpo auditoretza edo ebaluazio baten menpe, prebentzio-zerbitzua enpresarekin zerikusirik ez duen entitate espezializatu batekin hitzartu denean.

LAPL 48.1 ART

Oso larria

Langileen segurtasun eta osasunari buruzko arau espezifikoak ez betetzea emakumeen haurdunaldi eta edoskitzaroari dagokionean.

LAPL 48.2 ART

Oso larria

Arau espezifikoak ez betetzea adin txikikoen segurtasuna eta osasuna babesteari dagokionean.

LAPL 48.3 ART

Oso larria

Berehalaxe ez geldiarazi eta etetea, Lan Ikuskaritzak eskatutakoaren arabera, laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak bete gabe burutzen ari diren lanak, berauek, ikuskaritzaren iritzi, arrisku larri eta hurrekoa izan dezaketenean langileen segurtasun eta osasunerako, edota lan horiei berriro ekitea, geldiarazpena ekarri zuten kausak alde zuzen zuzendu gabe.

LAPL 48.5 ART

Oso larria

Isilpekotasunaren obligazioa ez betetzea langileen osasunaren zaintzari buruzko datuen erabilpenean, LAPL 22.4 artikulua aurrikusitakoaren arabera.

LAPL 48.6 ART

Oso larria

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak agintzen di-

tuen aurretiazko neurriak hartu gabe, langileen osasunari kalteak dakartzaten gai kaltegarrien eraginpean jartzeko mugak gainditzea, arrisku larri eta hurrekoak direnean.

LAPL 48.7 ART

Oso larria

Langileek arrisku larri eta hurrekoetan, LAPL 21 artikuluan aurrikusitakoaren arabera, beren jarduera eteteko duten eskubidea gauzatzea eragozten duten egintzak edo omisioak.

LAPL 48.8 ART

Oso larria

Langileen segurtasun eta osasunari arrisku larri eta hurbilekoa dakarten laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzeari dagozkion neurrietatik beste edozein neurri ez hartzea.

SOLDATAK

LE 95.2

Larria

Soldaten ordainagirian ez jartzea langileari benetan ordaindu zaizkion zenbatekoak.

LE 95.3

Larria


Finikitoaren ordainagirien tramitazioari buruz xedaturiko obligazioak ez betetzea.

GIZARTE SEGURANTZA

88/8 LEGEAREN 13 ART

Arina

Afiliazioari, alta eta bajei edota gai horiei buruz, kasua balitz, sor daitezkeen aldaketei dagozkien obligazioak bete direla egiaztatzen duen dokumentazioa ez kontserbatzea 5 urtetan, hala nola koti-



zazio-dokumentuak eta soldata-ordainketen nahiz prestazio ordainketa delegatuaren egiaztagiria.

88/8 LEGEAREN 13 ART

Arina

Kotizazio-dokumentuaren orijinala edo horren kopia baimendua lantoki barruan ondo ikusteko moduko lekuan azaltzea kuoten ordainketari dagokionaren hurrengo hilaren barruan, edota, kasua balitz, aipatutako dokumentazio hori ez entregatzea pertsonalaren

ordezkariei edo enpresa batzordeei.

88/8 LEGEAREN 13 ART

Arina

Ez jakinaraztea, behar den moduan eta epean, enpresaren zerbitzuari uzten dioten langileen bajak, hala nola horiei dagozkien aldatetak.

88/8 LEGEAREN 13 ART

Arina

Emateko obligazioa duten datuak ez luzatzea, edo oker ematea, dagozkien entitateei.

5. Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.

GIZARTE SEGURANTZA

88/8 LEGEAREN 13 ART

Arina

Laneko istripuen eta gaixotasunen estaldurarako asoziazio-dokumentuaren aldaketaren berri ez ematea dagokion entitateari.

88/8 LEGEAREN 13 ART

Arina

Laneko istripuen eta gaixotasunen prestazioetarako G. Segurantzaren kudeaketan borondatezko lankidetzan diharduten enpresak: - lankidetzaren horren egikaritzarako jasotako zenbatekoen aplikazioaren berri ez ematea seihilero enpresa batzordeari.

88/8 LEGEAREN 23 ART

Larria

Laneko istripuen eta gaixotasunen prestazioetarako G. Segurantzaren kudeaketan borondatezko lankidetzan diharduten enpresak:

zaren kudeaketan borondatezko lankidetzan diharduten enpresak: - dagozkion osasun instalazioak asistentziaren prestaziorako exijitzen diren baldintzetan ez mantentzea.

88/8 LEGEAREN 14 ART

Larria

Bere jarduera Gizarte Segurantzaren izena ematea eskatu gabe hastea, lantegien jardueraren hasiera eta uztea ez jakinaraztea, identifikazio efektuetarako, edota datu-aldaketak edo enpresen izena emateaz eta lantegien identifikazioz arauz xedaturiko beste obligazio batzuk ez jakinaraztea.

88/8 LEGEAREN 14 ART

Larria

Hasierako afiliazioa ez eskatzea dagokion epean eta forman,

hala nola bere zerbitzuan sartzen den langile bakoitzaren alta ez jakinaraztea modu berean.

88/8 LEGEAREN 14 ART

Larria

Pertsonalaren matrikula liburu edo, bere kasuan, liburu horren orde erabilia izateko baimenduriko dokumentazio sistema, lantegian ez edukitzea edo dagokion ordenan eta egunera jarria ez izatea.

88/8 LEGEAREN 14 ART

Larria

Kotizazio dokumentuak arauzko epearen barruan ez aurkeztea zigilurako, gizarte segurantzako kuotak sasoz sartzen ez direnean eta ordainketaren atzerapena eskatu ez denean.

88/8 LEGEAREN 14 ART

Larria

G. Segurantzako sistemak edozein kontzeptuz biltzen dituen kuotak ez sartzea dagokien forma eta epean, edota sarrera hori ez egitea dagokion zenbatekoan, sarrera ez egite hori enpresaren aparteko egoeraren bategatik izan ezean eta 14. artikuluan honetan aurrikusitako aurkezpena egin ez baldin badu.

88/8 LEGEAREN 14 ART

Larria

G. Segurantzaren kudeaketan dagokion derrigorrezko lankidetzatik eratorritako obligazioak ez betetzea.

88/8 LEGEAREN 14 ART

Larria

Zerbitzuan duen pertsonalaren laneko istripu eta gaixotasunen babesa legez dagokionez bestelako entitate batean formalizatzea.





88/8 LEGEAREN 15 ART

Oso larria

Pentsioen eta G. Segurantzaren alta eman gabe inoren konturako lanarekin bateraezin diren G. Segurantzako aldiaren-behingo beste prestazio batzuen onuradunei langile gisan lana ematea.

Beren jarduerari dagozkion lanak edo zerbitzuak burutzeko kontratuak edo azpikontratuak egiten dituzten enpresariak solidarioki erantzun beharko diete supostu honi dagozkion arau-hausteei.

88/8 LEGEAREN 15 ART

Oso larria

Langileei deskontaturiko gizar-te segurantzako kuotaren zatia epe barruan sartu gabe behar ez bezala atxikitzea, edota lege ezarri-

takoak baino deskontu handiagoak egin eta G. Segurantzaren ez sartzea.

88/8 LEGEAREN 15 ART

Oso larria

Beren langileekin edo gainerako onuradunekin ados jartzea barrauei tokatzen ez zaizkien prestazioak, edo kasu bakoitzean tokatzen direnak baino handiagoak lortzeko, edota haietariko edozeini dagozkion obligazioak betetzea ekiditeko.

88/8 LEGEAREN 15 ART

Oso larria

Langileekin ituntzea, banaka zein talde gisan, enpresariaren kargura ordaindu beharreko prima edo kuotaren zatia osorik edo zati-zati ordaintzeko obligazioa, edota

Gizarte Segurantzako sistemak langileei damaizkien eskubideei uko egitea.

88/8 LEGEAREN 15 ART

Oso larria

Langilearen kotizazioa behar ez bezala gehitzea, prestazioetan hobekuntzak lor ditzan.

88/8 LEGEAREN 15 ART

Oso larria

Arau-urratze oso larrien kasuan, gizarte segurantzako prestazioak maulaz lortu edo gozatzen dituzten langileetarik bakoitzeko arau-hauste baten egiletzat joko da enpresaria.

88/8 LEGEAREN 15 ART

Oso larria

LEaren 40.2 artikuluan aipaturiko lan agintaritzak agintzen duen

5. Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.

inkorporazio-epearen luzapen kasuetan, lekualdaketaren eraginkortasuna gerarazteko obligazioa ez betetzea enpresariak.


BESTE BATZUK

LE 94.5

Arina

Obligazio formal eta dokumental soilei dagokien beste edozein.

Ituna. Delitua da enpresariak ordaindu beharreko kuotak lan-gileekin banaka ituntzea.



delitu, zigor

Arlo sozialeko eta zehapenak.

Kode Penaleko (KP) 10 ART.

Legeak zigorturiko engainuzko edo zuhurtzigabeko egintza edo omisioak dira delitu edo hutsegite.

Zigor motak (KP 32 art.). Askatasun-kentzaileak - eskubide kentzaileak - isuna

ASKATASUN-KENTZAILEAK

- Presoaldia.
- Asteburuko atzipenaldia.
- Erantzunbehar subsidiarioa isuna ez ordaintzeagatik.

ESKUBIDE-KENTZAILEAK

- Erabateko gaitasungabetzea.
- Enplegu edo kargu publikorako-lanbide, ofizio, industriarako...-gaitasungabetze berezia.
- Enplegu edo kargu publiko gabetzea.

- Motoredun ibilgailuak gidatzeko eskubidegabetzea.
- Armak eduki eta eramateko eskubidegabetzea.
- Leku jakin batzuetan egoitza izateko edo leku horietara joateko eskubidegabetzea.
- Komunitatearen mesederako lanak.

ISUNA

Kondena jasotakoari isun-egunak ezartzean datzan diru-zehapena.

ZIGORREN GRADU-MAILA (MP 33 ART.).

Arinak.	Ez hain arinak.	Larriak.
<ul style="list-style-type: none">• Motoredun ibilgailuak gidatzeko 3 hilabetezko urtebeteraino eskubidegabetzea.• Armak eduki eta eramateko 3 hilabetezko urtebeterainoko eskubidegabetzea.• 5 egunetik 2 hilabeterainoko isuna.• Asteburu 1etik 6rainoko atzipenaldia.• 16 ordutik 96rainoko komunitatearen mesedetako lanak.	<ul style="list-style-type: none">• 6 hilabetezko 3 urterainoko presoaldia.• 3 urterainoko gaitasungabetze bereziak.• 3 urterainoko enplegu edo kargu publiko gabetzea.• Motoredun ibilgailuak gidatzeko urtebete eta egun batetik hasi eta 6 urteraino eskubidegabetzea.• Armak eduki eta eramateko urtebete eta egun batetik 6 urterainoko eskubidegabetzea.• Leku jakin batzuetan egoitza izateko edo leku horietara joateko 6 hilabetezko 3 urterainoko eskubidegabetzea.• 2 hilabete baino gehiagoko isuna.• Isun proportzionala, zenbatekoa nolatanahikoa izan.• 7 asteburutik 24rainoko atzipenaldia.• 96 ordutik 384rainoko komunitatearen mesedetako lanak.	<ul style="list-style-type: none">• 3 urtetik gorako presoaldia.• Erabateko gaitasungabetzea.• 3 urtetik gorako gaitasungabetze bereziak.• 3 urtetik gorako enplegu edo kargu publiko gabetzea.• Motoredun ibilgailuak gidatzeko 6 urtetik gorako eskubidegabetzea.• Armak eduki eta eramateko 6 urtetik gorako eskubidegabetzea.• Leku jakin batzuetan egoitza izateko edo leku horietara joateko 3 urtetik gorako eskubidegabetzea.

5. Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.

Hots, "x" eguneko isunera kondenatzea, epaileak ezarritako zenbatekoa ordaindu beharko duelarik egun bakoitzeko, eguneko kuota hori 200 ptatik 50.000rainokoa izan daitekeelarik, kondena jaso duenaren egoera ekonomikoaren arabera. Isuna ez ordaintzeak askatasun-gabetzea darama, eguneko bi kuota ordaindugabe bakoitzeko gartzela egun bat, alegia.

Langileen eskubideen kontrako delituak.

LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO BALDINTZAK.

Zigorturiko jokabideak

6 hiletik 3 urterainoko presoaldia eta 6 hiletik 12rainoko isuna.

Bortxa edo beldurrarazterik baldin bada, zigorra 3 urtetik 4 eta 5era, eta isuna 12 hilabetetik 18ra jasoko da.

KP 311

1. Zerbitzutan dituen langileei, iruzurrez edo halabeharrezko egoeraz abusatuz, legez, konbenio kolektiboz edo banako kontratuz ezagutzen zaizkien eskubideak kaltetu, ezabatu edo murrizten dituzten laneko edo gizarte segurantzako baldintzak ezartzea.

2. Besteren batek ezarritako baldintzok mantentzea, aurreko atalean deskribaturiko prozeduren jakinaren gainean.

DISKRIMINAZIOAK ENPLEGUAN

Zigorturiko jokabideak

6 hiletik 2 urterainoko presoaldia eta 6 hiletik 12rainoko isuna.

KP 314

Legearen aurreko berdintasun egoera ez berrezartzea errekerimendu edo zehapen administratioboaren ondoren, enpresariak egoera horretatik eratorritako kalte ekonomikoak ordaindu beharko dituelarik, enpleguan, publikoan zein pribatuan, norbaiten aurkako diskriminazio larri bat eragin ondoren, dela ideologia, erlijio edo sinesteengatik, dela etnia, arraza edo nazio jakin batetakoa izateagatik, dela sexuagatik, joera sexualengatik, edota famili egoera, gaixotasun edo ezintasunen bategatik; langileen legezko ordezkaritza izateagatik; enpresako beste langilearen batzuen senide izateagatik; estatu espainiarrean ofiziala den hizkuntzatariko bat erabiltzeagatik.

LANGILEEN INMIGRAZIO KLANDESTINOA

Zigorturiko jokabideak

6 hiletik 3 urterainoko presoaldia eta 6 hiletik 12rainoko isuna.

KP 313

1. Edozein medioz sustatu edo aldezte langileen inmigrazio klandestino Espainiara.


2. Norbaiten emigrazioa kanpoko herrialderen batera erabakitzea edo aldezte, kontratua edo enplegua simulatuz edo antzeko iruzurren batez baliatuz.

ASKATASUN SINDIKALA ETA GREBA ESKUBIDEA

Zigorturiko jokabideak

6 hiletik 3 urterainoko presoaldia eta 6 hiletik 12rainoko isuna.

Indarkeria, bortxa edo beldurrarazterik baldin bada, zigorra 3 urtetik 4 eta 5era, eta isuna 12 hilabetetik 18ra jasoko da.



→ Arlo sozialeko delitu, zigor eta zehapenak.

KP 315

Askatasun sindikalaren edo greba eskubidearen egikaritza iruzurrez edo halabeharrezko egoeraz abusatuz eragotzi edo mugatzea.

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO NEURRIAK

Zigorturiko jokabideak

6 hiletik 3 urterainoko presoaldia eta 6 hiletik 12rainoko isuna.

Jokabidea zuhurtzigabetasun larriz burutzen baldin bada: 3 hiletik 6rainoko presoaldia eta 3 hiletik 6rainoko isuna.

KP 316

Langileek beren jarduera segurtasun eta higiene-baldintza egokiz buru dezaten behar diren neurriak ez ahalbidetzea, horretara legez beharturik egonez eta laneko arriskuen prebentzio arauak hautsiz, eta horrela langileen bizia, osasuna edo segurtasun fisikoa arrisku larrian jarritz.

LANESKUAREN TRAFIKO ILEGALA

Zigorturiko jokabideak

6 hiletik 3 urterainoko presoaldia eta 6 hiletik 12rainoko isuna.

KP 312

1. Lanekuarekin ilegalki trafikatzeara.

2. Pertsonak erreklutatu edo beren lanpostua uztera eraman, enplegu edo lan baldintza iruzurrezko edo faltsuak eskainiz.

3. Atzerriko herritarrei enplegua ematea lan-baimenik gabe, legez, konbenioz edo banako kontratuz ezagutzen zaizkien eskubideak kaltetu, ezabatu edo murriz-

ten dituzten baldintzetan.

Oharra:

Jurisprudentziak jasotako kasuistikan honako hauek aurki dituzakegu: langileak enpresa jakin batetik beronen talde bereko beste enpresa handiago batera lekualdatzea, azken honen deskapitalizaziorari ekiteko jarraian (EGS 90-5-4); edota plantila guztiaren azpikeriazko lekualdaketa (EGS 92-2-28)

Kapitulu osoari oharra:

Aurreko jokabideak pertsona juridikoei esleitzen zaizkienean (sozietateak...), seinaturiko zigorra sozietate horietako erantzule izandako administrariei edo zerbizuko arduradunei ezarriko zaie, eta, egoera ezagutuz eta zuzendu ahal izanez, horretarako neurririk hartu ez dutenei.

Gizarte Segurantzaren aurkako delituak

GIZARTE SEGURANTZARI MAULAK

Urtebetetik 4 urterainoko presoaldia eta aipaturiko zenbatekoaren halako seikotza baten isuna.

KP 307

Gizarte Segurantzari 15 milioitik gorako maula egitea, ondoko jokabide hauek burutuz:

1. Kuoten ordainketari eta dirubilketa orokorraren kontzeptuei itzurtzea,

2. Kuoten itzulpenak behar ez

bezala lortzea,

3. Edozein kontzeptutako enkarkeriaz behar ez bezala eta asmo iruzurtiz gozatzea.

Ordenu sozioekonomikoaren aurkako delituak.

KIEBRA, KONKURTSO EDO ORDAINKETA-ETENDURA DEKLARATZEA

Zigorturiko jokabideak

2 urtetik 6 urterainoko presoaldia eta 8 hiletik 24rainoko isuna.

KP 260

Krisi ekonomikoko egoera edo kiebra, konkurtso edo ordainketa-etenduraren zio den kaudimengabetasuna maulaz eragin edo larriagotzea.

KIEBRA, KONKURTSO EDO ORDAINKETA-ETENDURA EGOERAN HARTZEKODUNEI ORDAINTZEA.

Zigorturiko jokabideak

Urtebetetik 4 urterainoko presoaldia eta 12 hiletik 24rainoko isuna.

KP 259

Ondare-xedapen edo obligazio-sortzaile datekeen edozein egintza burutzea hartzekodun bati edo bat baino gehiagori ordaintzearren gainerakoak bazterreraz utziz, honako betekizunok tarteko direlarik:

- kiebra, konkurtso edo ordainketa-etenduraren eskariaren tramitea onartu eta gero egin bada,

- horretarako baimendua izan gabe ez judizialki ezta konkurtso-

5. Enpresarien arau-hauste eta erantzukizunak.

organoen aldetik,

- eta legeak onarturiko kasuetatik kanpo eginez gero.

KIEBRA, KONKURTSO EDO ORDAINKETA-ETENDURA-REN PROZEDURA

Zigorturiko jokabideak

Urtebetetik 2 urterainoko presoaldia eta 6 hiletik 12rainoko isuna.

KP 261

Kontu-egoerari buruzko datu faltsuak aurkeztea, jakinaren gainean, kiebra, konkurtso edo ordainketa-etenaren deklarazioa lortzearen

Iruzkina interesgarri batzuk zigorrean buruz

Neurria

Enpresa ixtea eta beste zenbait gai

KP 129

Epaiak edo epaimahiak, kode penalak horrela aurrikusten duenean eta titularrei edo beraien legezko ordezkariari epaitegian alde aurretik entzun ondoren, ondoko hauek ezar ditzake:

a) Enpresa, lokalak edo establezimenduak ixtea, behin-behineko edo behin-betiko izaeraz. Behin-behineko itxiera ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

b) Sozietatea, elkargoa edo fundazioa desegitea.

c) Sozietatearen, enpresaren... jarduera-etetea. Bost urtetik gorako epea gainditu gabe.

d) Delitua egin, aldeztu edo esaldu den egikaritza motako jarduerak, merkataritza eragiketak

edo negozioak egitea debekatzea etorkizunean. Behin-behineko izaera (ez 5 urtetik gorakoa) edo behin-betikoa izan dezake.

e) Enpresa interbenitza -beharrezko deritzon denboran, baina 5 urte gainditu gabe-, langileen edo hartzekodunen eskubideak babestearren.

Neurria

Baldintzapeko askatasuna

KP 90-93

Sententzibidezko kondena jasodutenentzat, honako zirkunstantzia hauek emanez gero:

- hirugarren gartzela-graduan aurkitzen badira

- kondenaren 3/4ak bete badituzte

- portaera ona erakutsi badute

Neurria

Lan eginez luditzea

Kode penal berrian ez da kontenplatu pena luditzerik gartzelari lan egindako egunengatik, eta, ondorioz, penak beren iraupen

osoan bete beharko dira, baldintzapeko askatasunaren instituzioa salbu betiere.

Neurria

Pena betetzearen etendura

KP 80 eta hurrengoak

Lehenago "baldintzapeko bar-kamena" deitua, gartzelan ez sartzeko aukera ematen du, bi baldintza hauek betetzen badira:

- aurrekari penalik ez izatea

- kondena finkoa 2 urtetik gorakoa ez izatea

Neurria

Zigor askatasun-kentzailearen eta/edo isunaren ordezkapena

KP 88 eta hurr.

Epaiak edo epaimahiak aste-buruko atzipenaldia edo isuna ezar dezakete urtebetetik gorakoak ez diren gartzela-zigorren ordezkari (salbuespenez, 2 urtetik gorakoak ez diren kasuetan). Baita, al-diz, isunak askatasun-gabetzeaz edo aste-buruko atzipenaldiz ordezkari ditzake.

